

## Lagundutako giza ugalketa tekniken ondorioak euskal Zuzenbide zibilean\*

MAITE GÓMEZ OLEAGOITIA

Deustuko Unibertsitatea

Zuzenbidean graduatua

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 25/10/2017

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 12/11/2018

**Laburpena:** Artikulu honetan barruratzen da halako problematika, lagundutako giza ugalketa teknikak eta horren ondorioek euskal Zuzenbide zibilean sortzen dutenak, besteak beste, seme-alabatasuna eta auzotasun zibila, tronkalitatea, oinordetza eta foru-komunikazioa, horiek baitira aipaturiko Zuzenbide zibilaren erakundeak. Hortaz, aurreko gai horiek lotura berezia dute eskumen legegilearekin eta hori ere aztergai da lan honetan, azken finean, ondorio zehatz batzuk lortzeko euskal Zuzenbide zibilaren eraberritze prozesuan.

**Gako-hitzak:** Lagundutako giza ugalketa teknikak, seme-alabatasuna, auzotasun zibila, euskal Zuzenbide zibila.

---

\* Lan honek Zuzenbidearen Euskal Akademiaren legelari gazteentzako Adrián Celaya sariaren II. edizioaren saria jaso zuen.

**Resumen:** El artículo aborda la problemática que plantean las técnicas de reproducción asistida en relación a las cuestiones de filiación y sus efectos en la vecindad civil, la troncalidad, la sucesión y la comunicación foral, todas ellas instituciones ubicadas en el ámbito del Derecho civil vasco. De ahí que su relación con las cuestiones relativas a la competencia legislativa en esta materia sean también objeto de análisis y examen; todo ello para obtener una serie de conclusiones que giran en torno a la renovación del Derecho civil vasco.

**Palabras clave:** Técnicas de reproducción asistida, filiación, vecindad civil, Derecho civil vasco.

**Abstract:** This work approaches the problems within the different assisted reproduction techniques in relation with filiation, civil-residence, Real Estate Trunk Lineage Statute, inheritance and Universal Community Marriage Property Regime, all of which are Basque Civil Law institutions. Therefore, their relation with the Law demarcation regulation is also an object of analysis and exam, focusing on a battery of conclusions regarding Basque Civil Law renewing.

**Key words:** Assisted reproduction techniques, filiation, civil-residence, Basque Civil Law.

AURKIBIDEA: I. SARRERA. II. LAGUNDUTAKO GIZA UGALKETA TEKNIKAK ETA ESKUMEN LEGEGILEA. III. SEME-ALABATASUNA. 1. Arau orokorra. 2. Ezkontzazkoa. A. Homologoa. B. Heterologoa. C. Sexu bereko ezkontideak. 3. Ezkontzaz kanpokoak. A. Homologoa. B. Heterologoa. C. Emakumeak bere kabuz. IV. AUZOTASUN ZIBILA. V. TRONKALITATEA. VI. OINORDETZA. 1. Delazioa. 2. Nahitaezko oinordetza. 3. Abintestato oinordetza. 4. Testamentu bidezko oinordetza. A. Hil-buruko testamentua. B. Testamentu mankomunatua. C. Komisario bidezko testamentua. VII. FORU-KOMUNIKAZIOA. VIII. ONDORIOAK. IX. BIBLIOGRAFIA. X. ARAUEN ERANSKINA. XI. LABURDURAK.

## I. SARRERA

Lagundutako giza ugalketa teknikak (aurrerantzean LGUT) gizartean gero eta garrantzia handiagoa duten fenomeno bat dira. Izan ere, familia antolaketaren ikuspegitik ohiko ereduarekiko egon diren aldaketek ugalketa modu berriak sortzea eragin dute. Gaur egun, asko eta asko dira teknika horiek erabiltzen dituzten pertsonak, bai aipatutako familia eredu berriak sortu nahi izateagatik bai modu naturalean ugaltzeko ezintasunagatik (familia antolaketa tradizionalaren kasuan).

LGUT inguruko ikerketa lana egiteko arrazoi nagusia, egungo gizartean gai horrek duen garrantzia izan da. Bada, medikuntza- eta teknologia-aurrerapen horiek jende askok eta askok familia bat sortzea ahalbidetzen dute, modu naturalean ezinezko suertatuko zitzaaien gauza bat, hain zuzen. Hortaz, ezinbestekoa da teknikak arautzea, gizarteak horiek normaltasun eta naturaltasun osoz onar ditzan. Izatez, ernalketa artifizial hauetara jotzen duten pertsonak, gainerakoek beste eskubide dute familia bat sortzeko eta amatasun edo aitatasunaz gozatzeko. Horregatik, 14/2006 legearen azterketak interesgarria dirudi, aipatutako hori guztiori kontuan hartuta ondorio zibilak norainokoak diren ikusteko.

Beste arrazoi batzuk aipatzeko, horietako bat da alde batetik teknika horiek zuzenbidearentzat –zuzenbide zibilarentzat orokorrean– suposatzen duten erronka eta pentsaera aldatetaren garrantzia aztertzea. Batez ere, hauen eta beste aurrerakuntza askoren sorrerak zuzenbidean suposatzen dituen arazoak planteatuz, horien inguruan dauden iritziak haztatu eta balizko konponbideetatik egokiena bilatzea. Bestetik, Euskal Herrian LGUTen inguruko arauketarik ezaren ondorioen norainokoa ikustearren erabaki da gai hau lantzea. Eta legeria falta horrek segurtasun juridikoaren norainoko gutxitzeari so egiteko.

Horiek horrela, tekniken erabileraren hazkundeagatik egoera berri hau erregulatzeko beharra agertu da eta lan honen helburua teknika horiek erabiltzearen ondorioak aztertzea da, hain zuzen ere Euskal Zuzenbidean. Horretarako, kontuan hartuko dira bai 14/2006 Legea, LGUTei buruzkoa<sup>1</sup>, bai 5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilaria (EZZ) buruzkoa<sup>2</sup>. Gainera, azken lege honek berrikuntza ugari ekarri ditu EZZean aurreko legeak ezarritako arauketarekin alderatuz, eta egoera berri horiek lan guztian zehar ikertzea da jomuga.

Lana burutzeko metodologiari dagokionez, hasteko gaia zehazteko asmoarekin informazio bilketa bat egin da. Horri jarraituz, hasiera eman zaio abstrakzio fase bati, zeinetan aztertutako atal bakoitzean gerta litezkeen balizko arazoak planteatu diren, gerogarrenean itaun horien konponbidea bilatu eta azaltzeko. Esaterako, guraso baten heriotza gertatu eta gero horrenganako LGUTen ondoriozko seme-alabatasuna zehaztea posible den. Behin edukia osatzen duten atal guztien hipotesi horiek aztertuta, lanetik ateratako ondorioen azalpena burutu da.

<sup>1</sup> Espainia. 14/2006 Legea, maiatzaren 26koa, Lagundutako Giza Ugalketa Teknikei buruzkoa. *Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO)*, 2006ko maiatzaren 28an argitaratua, 126. zenbakia, 19.947-19.956 orr.

<sup>2</sup> Euskal Autonomia Erkidegoa. 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilaria buruzkoa. *Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala (EHAO)*, 2015eko uztailaren 3an argitaratua, 124. zenbakia.

Ikerketa juridiko hau burutzeko, erabilitako iturriak, orotarikoak izan dira; liburuak, artikuluko doktrinalak, aldizkari juridikoak, web orrialdeak, etab. Batez ere, hauen artean erabilienak CENDOJ, Dialnet, JADO eta EAO izan dira.

Azkenik, gradu amaierako lan hau osatzen duten atalen artean sei atal nagusi bereizi behar dira. Lehenengo atala den sarrera honi jarraituz bigarren atalean, LGUT kontzeptua eta gai horren eskumen legegilea aztertu dira. Hirugarrenean, seme-alabatasunaren zehaztapenaren inguruko gora-beherak planteatu dira. Laugarrenean, auzotasun zibila zehazteko orduan sortu litezkeen arazoak azaldu dira. Bosgarrenean, tronkalitateak suposatzen dituen onura eta mugak aztertu dira. Seigarrenean, LGUT bidez jaio-tako seme-alaben oinordetza fenomenoak ikertu da. Eta azkenik, zazpigarrenean foru-komunikazioaren nondik norakoak arakatu dira. Aipatu sei atal horiekin batera, ondorioak planteatzeaz gain laburduren zerrenda, bibliografia eta arauen eranskina ere gehitu zaizkio lanari.

## II. LAGUNDUTAKO GIZA UGALKETA TEKNIKAK ETA ESKUMEN LEGEGILEA

Gaur egun, LGUT inguruko arauketa bakarra estatu mailakoa da; 14/2006 Legea. Izan ere, osasunaren oinarriak eta koordinazio orokorra zehaztea estatuaren eskumen eksklusiboa da Espainiako Konstituzioaren<sup>3</sup> (EK) 149.1.16. artikulua ezarri bezala. Horrez gain, badaude lege horren zati batzuk zeinak EKren 149.1. artikulua beste azpi-puntu batzuetan oinarritzen diren, hain zuzen ere, IV. kapituluak (gameto eta aurre-enbrioien ikerketari buruzkoa, 149.1.15. artikuluan oinarrituta garatua) eta 7tik 10era arteko artikulua (seme-alabatasunari buruzkoa, 149.1.8. artikuluan oinarrituta).

<sup>3</sup> Espainia. Espainiako Konstituzioa. *EAO*, 1978ko abenduaren 29an argitaratua, 311. zenbakia, 29.313-29.424 orr.

Hala ere, kontuan hartu behar da, autonomia erkidegoek (AE) ere badutela zeresanik gai honen barnean. Izan ere, nahiz eta osasunaren oinarri orokorrak finkatzea estatuaren eskumeneko gaia izan, oinarri horiek garatzeko eskumena aitortu zaie AEei EKaren 148.1.21. artikulua esanetan. Euskadin, aukera hori izan arren, ez da eskumen hori erabili; gaur egun ez baitago LGUTen inguruko arauketa propiorik.

Kontrara, 14/2006 Legeak ukitzen duen esparru zibilari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) badago 5/2015 Legea EZZri buruzkoa, aztergai izango dena teknika horiek erabiltzearen ondoriozko egoera zibilen gora-beherak argitzeko.

14/2006 Legearen aurretik, LGUTen gaiak beste arauketa batzuk ere izan ditu. Teknika berri hauen sorrera 70eko hamarkadan gertatu zenez, une hartan bertan horiek arautzeko beharra sortu zen, eta behar horren emaitza izan zen 35/1988 Legea<sup>4</sup>. Lege honen kontra Konstituzio aurkakotasun errekurso bat aurkeztu zen, baina Konstituzio Auzitegiak ezetzatu egin zuen, legeari onarpena emanez.

Hamabost urte geroago, 45/2003 Legea<sup>5</sup> eman zen, aurreko hori aldatzeko asmoarekin. Hainbatez, esandako hamabost urte horietan aurreakuntza zientifiko asko gertatu ziren bai medikuntzaren arloan orokorrean, baita LGUTetan. Hortaz, beharrezkoa zen berrikuntza horien inguruko gorabeherak arautzea eta etikaren eta segurtasun juridikoaren inguruan sor litezkeen balizko arazoei konponbidea ematea.

Horrela, gaur egunean indarrean dagoen legeari helduko diogu. Hau ere, denbora igaro ahala, aurreko legean ikusi diren akatsak ongitzeko, hutsuneak osatzeko eta legea bera eguneratzeko emana.

<sup>4</sup> Espainia. 35/1988 Legea, azaroaren 22koa, Lagundutako Ugalketa Teknikei buruzkoa. *EAO*, 1988ko azaroaren 24an argitaratua, 282. zenbakia, 33.373-33.378 orr.

<sup>5</sup> Espainia. 45/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, zeinaren bitartez 35/1988 Legea, Lagundutako Ugalketa Teknikei buruzkoa aldatzen den. *EAO*, 2003ko azaroaren 22an argitaratua, 280. Zenbakia, 41.458-41.463 orr.

LGUT aurretik aipatu bezala, modu artifizialean emakumearen haurdunaldia lortzeko prozesuak dira, bai emakumearen zein gizonezkoaren antzutasunagatik bai bikote homosexualak batera ugaltzeko ezintasunagatik erabiliak. Egungo legeak hiru teknika jasotzen ditu, beronen eranskinean zehazten direnak.

Hasteko, intseminazio artifiziala aipatzen da. Teknika honen bitartez, espermatozoideak emakumearen umetokian sartzen dira, Falopioren tronpetan ernalketa gerta dadin. Bigarren teknikari dagokionez, in vitro ernalketa edo espermatozoideen zitoplasma barneko injekzioa dugu. Prozesu honek espermatozoidea eta obulua laborategian batzean datza gero garrenean emakumearen umetokira sartzeko. Azkenik, legeak onartu duen hirugarren teknika gametoen transferentzia intratubarikoa da, zeinaren bitartez ebakuntza bat eginez espermatozoide eta obulu helduak emakumearen umetokian sartzen diren.

Teknika horiek beraz, amatasun subrogatua ez bezala, legezkoak dira Espainian. Izan ere, aipatu beharra dago amatasun subrogatua 14/2006 Legeak berak, 10. artikuluan ezarri duenez debekatuta dagoela Espainiako estatuan, eta hori erabiltzekotan, umearen seme-alabatasuna ume hau erditzen duen emakumearekiko zehaztuko dela ezarri da, emakume horren eta beste alderdiaren arteko kontratua deuseza izanik.

### III. SEME-ALABATASUNA

#### 1. Arau orokorra

LGUT erabiltzearen ondoriozko seme-alabatasunaren zehaztapenari dagokionez, 14/2006 Legearen 7.1. artikulua dioenez, lege zibilen araberako egingo da. Hortaz, EAEak seme-alabatasunari buruzko arauketa

propiorik ez duenez, Kode Zibilera<sup>6</sup> (KZ) jo behar da. Bertan, 108. artikuluan seme-alabatasun mota desberdinak zehazten dira; alde batetik, seme-alabatasun biologikoa aipatzen da eta bestetik, adopzio bidezkoa. Biologikoaren baitan, beste desberdintasun bat ere egiten du; ezkontzazkoa eta ezkontzaz kanpokoa.

Hortaz, planteatzen den lehenengo eztabaida LGUTetik eratorritako seme-alabatasunaren erregimen juridikoa zein den zehaztea da. Legegilearen irizpidea bai 35/1988 Legean, bai 14/2006 Legean, seme-alabatasun natural edo biologikoaren aldekoa izan da. Hala ere, doktrinaren parte handi bat ez dago horrekin ados, eta batzuek hirugarren seme-alabatasun mota bat finkatzea edo erabilitako LGUTaren arabera seme-alabatasun mota bat edo beste zehaztea proposatu dute<sup>7</sup>.

Legegilearekin bat etorriz, zentzuzkoa da seme-alabatasun biologikoaren aldeko jarrera hartzea. Izatez, nahiz eta ugaltze-materiala emakumearen umetokian modu artifizialean sartu edo ernalketa modu berean gertatu, enbrioia emakumearen umetokian garatzen da umea jaio arte. Beraz, adopzioan ez bezala, haurraren eta amaren artean lotura estua dago, eta senarraren eta umearen artean ere, baldin eta LGUTan senarraren gametoak erabili badira.

KZko seme-alabatasunaren arauketari jarraiki, aipatu seme-alabatasun biologikoaren barruan beste bereizketa bat egiten du; ezkontzazkoa edo ezkontzaz kanpokoa izan daiteke. Eta orain azalduko den bezala, mota batekoa edo besteko seme-alabatasuna zehazteko arazo desberdinak planteatzen dira.

<sup>6</sup> Espainia. 1889ko uztailaren 4ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzekoa. *EAO*, 1889ko uztailaren 25ean argitaratua, 206. zenbakia, 249 or.

<sup>7</sup> VERDERA SERVER, R. «Comentario a los artículos 7 y 8». In: COBACHO GÓMEZ, J.A. (Koord.). *Comentarios a la ley 14/2006, de 26 de mayo, sobre Técnicas de Reproducción Humana Asistida*. Zizur Txikia: Thomson-Aranzadi, 2007, 217-219. orr.



## 2. Ezkontzazkoa

### A. Homologoa

- *Inter vivos*

Ernalketa homologoa *inter vivos* gertatzen den kasuetan ez da arazo gehiegi planteatzen. Egin-eginean ere, ernalketa homologoak LGUTn senarraren gametoak erabiltzean datza. Beraz, senarrak bere ugaltze-materiala erabiltzeko adostasuna ematen badu, nahiz eta ernaltzea modu artifizialean gertatu guraso biologikoak (genetika-materiala ematen dutenak) eta guraso juridikoak (modu formalean legearen arabera jasotakoak) bat datoz. Seme-alabatasuna zehazterakoan, ez da inolako arazorik egongo, Kode Zibileko erregelak jarraituko dira, 115.-119. artikuluen bitartekoak hain zuzen.

Aldiz, senarrak bere gametoak erabiltzeko adostasuna ematen ez duenean, seme-alabatasuna zehazteko orduan eztabaida sortzen da. Alde batetik, adostasunari lehentasuna ematen bazaio, senarrak aitatasuna inpugna dezake. Beste alde batetik, gertakari biologikoari lehentasuna ematen bazaio, senarrak aitatasuna onartu beharko luke.

- *Post mortem*

Kasu honetan ere, senarraren gametoak erabiltzen dira kasuan kasuko teknikaren bitartez ernalketa gauzatzeko, baina senarra hil eta gero. Egoera zehatz hau beren-beregi jaso du 14/2006 Legeak, 9.1. artikuluan, eta seme-alabatasuna zehazteko ezintasuna ezarri du (aitarekiko), senarraren heriotza unean bere ugaltze-materiala emaztearen umetokian ez badago.

Aipatu artikuluan xedatutakoa gorabehera, senarrak adostasuna eman dezake eskritura publiko, testamentu edo antzeko agiriaren bitartez, bera hil eta hurrengo 12 hilabeteetan bere ugaltze-materiala erabil dadin bere emaztea ernaltzeko. Egoera horretan senarraren adostasuna dagoenez, jaiotzen den umearikiko ezkontzazko seme-alabatasuna ezarriko da. Adostasun hori dagoela ulertuko da baldin eta gizona hil baino lehen

emazteak lagundutako ugalketarako prozesua hasia bazuen. Guzti hau 9.2. artikulua xedatzen du (14/2006 Legekoak).

### B. Heterologoa

Ernalketa heterologoari dagokionez, senarra ez den hirugarren gizon baten gametoak erabiltzen dira ernalketa prozesurako. Beraz, kasu honetan egon daitekeen arazoa da, ugaltze-materiala ez dela senarrarena, eta aitasunaren zehaztapena ez dela ernalketa homologoan bezain argia.

Ernalketa mota hau erabiltzeko, emakumearen eta senarraren adostasuna badago, teknika horren ondorioz jaiotako haurrarekiko, ezkontzazko seme-alabatasuna ezarriko da. Beraz, adostasunak sekulako garrantzia du kasu honetan. Izan ere, 14/2006 Legeko 8.1. artikulua dioenez, behin adostasuna emanda, ez emakumeak ezta gizonak ere, ezin izango dute ernalketa hori aurkaratu.

Eztabaida, senarraren adostasuna ez dagoenean sortzen da. Kasu horretan seme-alabatasuna ezkontzazkoa den edo ez zalantzarria izan daiteke, aurreko kasuan ez bezala senarraren adostasuna falta baita. Honen aurrean planteatzen den konponbidea KZren 116. artikuluan jasotzen den presuntzioa da; hau da, seme-alabak ezkontzaren ostean jaio badira, eta ezkontza hori desegin edo ezkontideak legez nahiz egitez bannandu eta hurrengo hirurehun egunak igaro baino lehen, uste da horiek senarraren seme-alabak direla.

Gerta daiteke, emakumeak ernalketa heterologo prozesua hastea senarrak horren berri eduki barik. Zer nolako seme-alabatasuna egongo litzateke umea jaiotzean? Senarrak aukera bi izango lituzke. Alde batetik, aitasuna aurkaratu ahal izango luke, akzio baten bitartez. Bestetik, ume hori seme edo alaba bezala inskribatu ahal izango luke; hau da, bere ezkontidearen umea adoptatu.

### C. Sexu bereko ezkontideak

Orain arte aipatutako kasu guztiak bikote heterosexualan oinarritutakoak izan diren arren, 14/2006 Legeak, 2007. urtean izandako aldaketa batek ezkontide homosexualen kasua aurreikusten du, amatasun bikoitzarena hain zuzen. Hainbatez, 7.3. artikulua xedatzen duenez, beste emakume batekin ezkontutako emakumeak, bere ezkontidearengandik jaiotako umearen seme-alabatasun zehazteko adostasuna eman dezake Erregistro Zibilaren Legeak xedatutakoaren arabera adierazpen baten bitartez.

Beraz, uler daiteke, umea sabelean hazi ez duen emakumeak, aitorpenaren bitartez, bere ezkontideak erditu duen umearen seme-alabatasunaren gaineko adostasuna eman dezakeela, eta seme-alabatasun hori ezkontzazkoa izango dela. Artikulu horretatik bi ondorio atera daitezke: alde batetik, beharrezkoa dela emakume bien arteko ezkontza egotea, eta bestetik, adostasun adierazpenak zehazten duela seme-alabatasuna. Horiek horrela, doktrinaren ustetan, 7.3 artikulua bitartez, seme-alabatasuna zehazteko titulu berri baten aurrean gaude, BARBER CÁRCAMO<sup>8</sup> azaldu bezala.

Hala ere, artikulu honek alde batera utzi du ezkontuta ez dauden emakumeen kasua; doktrinak begi onez ikusi ez duen bereizketa. Bartzuen ustetan, xedapen horrek *more uxorio* bizi diren emakumeekiko diskriminazioa suposatzen du. Izan ere, aurrerago azalduko den bezala emakume umedunarekin afektibotasun harremana duen gizonak emandako adierazpena seme-alabatasuna zehazteko modu bat da. Bereizketa hori, analogiaren bitartez konpondu beharko litzateke hauen aburuz<sup>9</sup>.

Horrez gain, gizonezkoen ezkontza edo bikote homosexualak ere, kanpo uzten ditu 7.3. artikulua. Hala ere, horren arrazoia halako kasu

<sup>8</sup> BARBER CÁRCAMO, R. «Reproducción asistida y determinación de la filiación». *Revista Electrónica de Derecho (REDUR)*. 2010eko abendua, 8. zenbakia, 29. or.

<sup>9</sup> TAMAYO HAYA, S. «Hacia un nuevo modelo de filiación basado en la voluntad de las sociedades contemporáneas». *Revista Digital Facultad de Derecho (Universidad de Cantabria)*. 2013, 6. zenbakia, 280 or.

baten nahitaez amatasun subrogatura jotzeko beharra da (bikotekideek umeak sabelean hazteko duten ezintasunagatik), eta esan bezala, lege honek beronek debekatu egiten du teknika horren erabilera Espainiako estatuan (10. artikuluan).

### 3. Ezkontzaz kanpoko

#### A. Homologoa

- *Inter vivos*

Lehen aipatu antzera, ezkontzaz kanpoko ernalketa homologoan emakumearekin harreman afektiboa duen gizonaren gametoak erabiltzen dira LGUTn. Legeak ez du egoera honentzat arauketa berezirik aurreikusten, eta ondorioz, berriz ere KZera jo behar da. Hain zuzen ere, 120.tik 126.ra bitarteko artikuluetara; bertan xedatzen baita ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunaren zehaztapena. Zehaztapen hori egiteko moduak KZren 120. artikuluan jaso dira; Erregistro Zibilar buruzko arauketaren araberrako inprimakian egindako adierazpenaren bidez; Erregistro berdineko arduradunaren aurrean, testamentuan edo beste dokumentu publiko baten egindako aitorenaren bidez; eta erregistro-espeditetik eratorritako ebazpenaren bidez, besteak beste.

Emakumearen bikotearen adostasunik gabe egiten bada KZko presuntzioak aplikatu beharko dira seme-alabatasuna zehazteko. Beraz, gizonak teknikak bere adostasunik gabe erabili direla frogatu beharko du. Dena dela, epaileak batez ere haurraren onura hartuko du kontuan ebazpena emateko orduan.

- *Post mortem*

*Post mortem* ernalketa homologoan, ernaldua izango den emakumearekin afektibotasun harremana duen gizonaren gametoak erabiltzen dira baina gizon horren heriotza gertatu eta ostean. Kasu honetan, legegileak berdindu egiten ditu ezkontide eta bikotekide zenduaren egoerak. Hau da,

gizonezkoen (senarraren edo bikotekidearen) ugaltze-materiala emakumearen umetokian badago beraien heriotza unean, horiekiko seme-alabatasuna ezarriko da, orain aztergai dugun kasuan ezkontzaz kanpoko.

Horrez gain, LGUTEi buruzko legeak ezkondu gabeko gizonari (senarrarekin egiten duen gisan) bera hil eta hurrengo 12 hilabeteetan bere bikotekidea ernaltzeko helburuarekin bere gametoak erabiltzeari adostasuna emateko baimena ematen dio, kasuan kasuko dokumentuaren bitartez.

### B. Heterologoa

Ernalketa heterologoa, arestian azaldu bezala, hirugarren gizon baten gametoak erabiltzen dira; kasu honetan emakumearekin afektibotasun harremana duen gizona ez den beste batenak. Halako kasuetan emakumearen bikotearen aldeko aitatasuna zehaztu ahal izateko, kasuan kasuko teknika hasi baino lehen gizonak adostasuna eman beharko du horretarako eskumena duen zentroaren aurrean egindako dokumentuan. Dokumentu hori zalantzarik gabekotzat hartuko da 20/2011 Legearen<sup>10</sup> 44.7. artikuluko efektuetarako.

LGUTpean jarriko den emakumearen bikoteak adostasunik ez emateko kasuan, zer gertatuko litzateke? Gizon horrek, adostasuna eman ez duela aintzat hartuta, ez luke bere bikoteak erditutako umearekin inolako harremanik izango; ez harreman biologikorik, ezta harreman juridikorik ere. Beraz, ezin izango litzateke aitarekiko seme-alabatasuna zehaztu. Hala ere, nahiz eta prozesua hasi baino lehen adostasuna ez eman, edozein momentutan, gizon horrek bere aldeko aitatasuna zehaztu dadin aitortpena egin dezake (KZren 120. artikuluan xedatutako moduen arabera).

<sup>10</sup> Espainia. 20/2011 Legea, uztailaren 21ekoa, Erregistro Zibilari buruzkoa. *EAO*, 2011ko uztailaren 22an argitaratua, 175 zenbakia, 81.468-81.502 orr.

### C. Emakumeak bere kabuz

14/2006 Legeak, ez du beren-beregi aipatzen emakume batek bere kabuz; inolako bikote barik, LGUT erabiltzeko kasua. Hala ere, 6.1. artikulutik ondoriozta daiteke hau posible dela, bertan, 18 urtetik gorako edozein emakume teknika hauen erabiltzaile izan daitekeela esaten baitu, baldin eta horrek jarduteko gaitasuna badauka eta kasuan kasuko teknika erabiltzeko adostasuna modu libre, kontziente eta berariazkoan ematen badu. Gainera, 6.3. artikuluan emakumea ezkontuta egotekotan egin beharrekoa aipatzen da, beraz uler daiteke 6.1. artikulua emakumeak bere kabuz teknika hauetara jotzen duen kasuari egiten diola erreferentzia.

Horiek horrela, emakumeak LGUTetara bere kabuz jotzen duenean, teknika horien erabileraren ondorioz jaiotzen den umearen amarekiko seme-alabatasuna zehaztu ahal izango da, ez ordea aitatasuna. Seme-alabatasun hori ezkontzaz kanpokoa izango da eta ernalketa heterologoaren bitartez egindakoa.

Behin seme-alabatasunaren zehaztapenaren inguruko gorabeherak aztertuta, eta horren inguruko hipotesiak argituta, seme-alabatasun hori zehazteak EZZren alor desberdinetan eragiten dituen ondorioak, eta batez ere haurren egoera, aztertzeari joko zaio.

## IV. AUZOTASUN ZIBILA

Berez, auzotasun zibila pertsona baten eta lurralde baten artean ezarzen den lotura da. Lotura horrek, Espainiar estatuaren barnean legeria jakin baten edo bestearen menpe jartzen ditu herritarrak; hau da, auzotasun zibilaren bitartez zehaztuko da herritar bakoitzari zuzenbide zibil erkidea edo berezia aplikatuko zaion. Gure kasuan, 5/2015 Legea, EZZri buruzkoa izango litzateke zuzenbide zibil berezia.

LGUTen erabileraren ondorioz jaiotako umeen auzotasun zibilaren zehaztapenari dagokionez, 14/2006 Legeak ez du ezer berezirik aipa-

tzen, beraz lan honetan aztergai den legera jo behar dugu; EZZri buruzko legera hain zuzen. Bertan, lege berriak ekarri duen berritasun handienetako bat ikus daiteke: euskal auzotasun zibila. Izan ere, 5/2015 Legeak indargabetu duen 3/1992<sup>11</sup>.

Legean ez zegoen euskaldun guztientzako auzotasun zibil erkide bat, eta ondorioz, ez zen lurralde guztietan lege berdina aplikatzen; forudunak eta forugabeak desberdintzen baitziren. Gaur egun, 5/2015 Zazpigarren Xedapen Iragankorrean<sup>12</sup> ezarri denez EAeko edozein lurraldetako auzotasuna dutenek, euskal auzotasun zibila eskuratuko dute zuzenean. Xedapen honen eragina sekulako da, izatez, auzotasuna aldatzeak, aplikagarri zaien legea ere aldatzea eragin du euskal herritar askorentzat.

EZZri buruzko legera auzotasun zibilaren arauketarekin hasteko, 10.2. artikuluan ezartzen denez, auzotasun zibila KZko arauekin bat etorri eskuratu, iraunarazi eta galduko da. Hortaz, KZan xedatutakoa hartu beharko dugu kontutan auzotasun zibilaren zehaztapenerako. KZren 14. artikulua bi kasu bereizten ditu jaioberrien auzotasuna zehazteko momentuan; alde batetik guraso biek auzotasun berdina dutenean, eta bestetik, auzotasun desberdina dutenean.

Lehenengo kasuari dagokionez –gurasoek auzotasun bera dutenean– LGUTen erabileraren ondorioz jaiotako umeak auzotasun hori berori izango du; gurasoen berdina (KZren 14.2. artikulua). Aldiz, gurasoen auzotasuna desberdina den kasua KZren 14.3. artikulua jasotzen du, eta horren arabera, jaioberriaren seme-alabatasuna noren alde lehenago eza-

<sup>11</sup> Euskal Autonomia Erkidegoa. 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa. *EHAO*, 1992ko abuztuaren 7an argitaratua, 153. zenbakia, 6.989-7.077 orr.

<sup>12</sup> 5/2015 Legearen Zazpigarren Xedapen Iragankorra: «*Lege hau indarrean jartzeaz geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldeetatik edozeinetan auzotasun zibila dutenek zuzen-zuzenean eskuratuko dute euskal auzotasun zibila, eta, hala denean, euren dagokien toki- auzotasun zibila ere bai*».

rri eta horren auzotasuna izango du haurrak. Guraso bien aldeko seme-alabatasuna aldi berean zehaztu bada, umearen auzotasuna bere jaioterriaren arabera izango da. Eta azken buruan, auzotasun erkidea izango du. Hala ere, artikulua berean esaten denez, gurasoek haurra jaio eta hurrengo 6 hilabeteetan beraietako edozeinen auzotasuna ezarri ahal izango diote seme-alabari.

EAEko arauketari jarraiki, EZZri buruzko legearen 11. artikulua zalantzarik kasuetan zein auzotasun zibil gailenduko den aipatzen du, eta hori jaiotza-lekuari dagokiona izango da. Xedapen bera jasotzen du KZk 14.6. artikuluan. Beraz, nahiz euskal legeak zalantzarik kasua berriaz arautu, KZk ezartzen duen berdina jaso du.

Aipatzekoa da, auzotasun zibilari buruzko arauketa berriaren inguruan eztabaida handia sortu izan dela Zazpigarren Xedapen Iragankorren konstituziotasuna dela eta. Bada, doktrinaren zati handi batek EAEk euskal auzotasun zibila sortuaz, EKk 149.1.8. artikuluan<sup>13</sup> estatuari aitortutako eskumen eskusiboa urratu dela ulertzen du. Bertan aipatzen diren lege-gatazkak konpontzeko arauen barruan lotura puntuak ere badaudela ulertzen baitute. Eta lotura puntu esanguratsuenetariko bat hain zuen, auzotasun zibila da. Jurisprudentziak ere horrela ulertu du, eta auzotasun zibila arautzeko eskumena estatuarena dela adierazi du.

Hala ere, kontrako jarrera ere defendatu daiteke. Eta doktrinaren beste zati handi batek horrela uste du eta hurrengo argudioetan oinarritzen da. Hasteko, ez da inolako konstituzio-aurkakotasun errekurtsorik aurkeztu Estatuaren aldetik. Gainera, Euskal Herriko Autonomia Estatuua-

<sup>13</sup> EKren 149.1.8. artikulua: «Estatuaren eskumen eskusibokoa da: legegintza zibila; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, forudunak nahiz bereziak, iraunarazi, aldatu eta garatu ahal izango dituzte, halakoak direnetan. Edozein kasutan, arau juridikoen aplikazio eta eragingarritasunari buruzko erregelak, ezkontzeko formei dagozkien harreman juridiko-zibilak, erregistro eta agerkari publikoen antolakuntza, kontratuak betebeharen oinarriak, lege-gatazkak konpontzeko arauak eta Zuzenbidearen iturburuak zehazten dituztenak, betiere, azken kasu horretan, foru-zuzenbidearen edo zuzenbide bereziaren arauak errespetatuaz».



ren<sup>14</sup> (EHAE) 10.5. artikulua<sup>15</sup> jasotzen duenez, EAEk eskumena du foru zuzenbidea aldatu eta garatzeko, beraz, euskal auzotasun zibilaren sorrera eskumen honen esparruan egiten da. Azkenik, Estatu Kontseiluaren 1537/92 Irizpenaren<sup>16</sup> arabera EAEk eskumena du bere lurraldearen barnean gerta daitezkeen lege gatazkak konpontzeko gatazka arauak eta auzotasun zibila erregulatzeko.

Azaldu berri diren argudioak, bai alde batekoak, bai bestekoak erabiliz jarrera biak defendatu ahal direnez, desadostasun handiak daude doktrinan. Hala ere, Konstituzio Auzitegiaren epai batez baino ezin daiteke eztabaida hau konpondu<sup>17</sup>.

## V. TRONKALITATEA

Tronkalitatea, CHALBAUD ERRAZQUINEK<sup>18</sup> zioen bezala, onibarraren eta familiaren artean ezartzen den lotura bat da, ondasun horiek familiatik inoiz irten ez daitezen. Eta 5/2015 Legeak ere, 62.1. artikuluan definizio bat jasotzen du esanez tronkalitateak ondarearen familia-izaera babesten duela. Beraz, Foruetatik datorren tronkalitatearen erakunde hau

<sup>14</sup> Euskal Autonomia Erkidegoa. 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzkoa. *EHAO*, 1980ko urtarrilaren 12an argitaratua, 32. zenbakia.

<sup>15</sup> EHAEn 10.5. artikulua: «*Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du: Euskal Herria osatzen duten lurralde historikoetako foru-zuzenbide zibil eta berezia, dela idatzia ala ohiturazkoa, gorde, aldatu nahi garatzea, eta indar izango duen lurraldea finkatzea*».

<sup>16</sup> Estatu Kontseiluaren 1537/1992 Irizpena, 3/1992 Legea –Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoa– dela eta eskumenen egokitzapenerakoa.

<sup>17</sup> IRIARTE ÁNGEL, J.L. «El asentamiento institucional y material del Derecho Civil Vasco: Ámbito material y personal y normas conflictuales». In *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*. Gasteiz: Txosten eta agiriak bilduma. Maior saila. Eusko Legebiltzarra, 2016, 135-161 orr.

<sup>18</sup> CHALBAUD ERRAZQUIN, L. *La Troncalidad en el Fuero de Bizcaya: sucesión troncal, llamamientos en las transmisiones onerosas*. Bilbo: Sebastián de Amorrortu, 1898.

familiak bizitza osoan lortutako ondasunak belaunaldiz belaunaldi igarotzean euren horretan mantentzeko sortua izan zen. Erakunde honen izateko arrazoia estu lotuta dago printzipio tronkal eta sozialekin, eta batez ere baserriak euskal gizartean duen garrantziarekin<sup>19</sup>.

Erakunde euskaldun honen aplikazio eremuari dagokionez, onibarrak izango dira Bizkaiko lur lauan zein infantzonatuan eta Laudio eta Aramaioko udal-mugarteetan kokatutakoak, 61.1. artikuluaekin bat etorriz. Beraz, aipatu artikulua eta 61.2. artikulua<sup>20</sup> kontuan harturik, tronkalitatearen ondoreak Bizkaiko ia lurralde osoan –61.2. artikuluan zerrendatzen diren herriak salbu– eta Laudion eta Aramaion kokatutako onibarren gainean gertatuko dira. Eta onibarrak dira 64. artikulua dioenez, jabetza eta gainerako gozate-eskubide errealak, lurzorua gainekoak edo bertan landatu, eraiki edo ereiten denaren gainekoak baldin badira. Hortaz onibarrak izan daitezke orube bat, zein etxebizitza bat edo landareak.

LGUTk erabiltzeak tronkalitatean dituen ondorioei erreparatuz, hasteko, jaioberria tronkero izango da, 66.1. artikulua arabera. LGUTk erabili izanak senide tronkero izateko berez, ez du inolako arazorik planteatzen. Berez, horretarako beharrezkoa den betekizun bakarra Erregistro Zibilean seme-alaba gisa inskribatuta egotea delako. Ondorioz, tronkalitatearen ondoreetarako ez da kontuan hartuko seme-alabatasuna naturazkoa edo biologikoa den, eta LGUTen ondorioz jaiotako umeak, modu naturalean jaiotakoak beste eskubide izango ditu tronkalitateari dagokionez.

Zalantzarriagoak dira aldiz, 69. artikulua hari sor daitezkeen egoerak. Artikulu horrek, berrikuntza esanguratsu bat ekarri baitu 3/1992 Le-

<sup>19</sup> GOROSTIZA VICENTE, J.M. «El futuro de la institución troncal». In *El Derecho Civil Vasco... op. cit.*, 275–284 orr.

<sup>20</sup> 5/2015 Legearen 61.2. artikulua: «*Infantzonatua edo lur laua da Bizkaiko lurralde historiko osoa, salbu eta Balmaseda, Bermeo, Bilbo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugaleta eta Plentziako hiribilduen zati fongabea, eta Urduñako hiria*».

gearren 24. artikulua arauketarekin alderatuz. Aurreko legean ondasun tronkalen gainean dohain bidez egindako eskualdaketak (*inter vivos* zein *mortis causa* egindakoak) deusezak ziren *ope legis* baldin eta, kanpokoen edo ondasunak eskuratzeko lehenespenezko lerroan ez dauden senideen mesedera-ko egiten baziren. Indarreko legean aldiz, horrelako kasuetan eskualdaketa hori deuseztakorra izango da –hortaz ez da berez deuseza izango– eta senide tronkeroak lau urteko epea izango du eskualdaketa hori aurkaratzeko, beronen berri duenetik eta, edozelan ere, Jabetza Erregistroan inskribatu denetik.

LGUTen aplikazioaren ondorioz, manu hauen harira planteatzen da zer gertatuko litzatekeen baldin eta senarra hiltzean bere gametoak erabiltzeko adostasuna eman eta ondasun tronkalaren eskualdaketa, gametoak erabil daitezkeen 12 hilabete horiek igaro baino lehen egiten denean. Kasu horretan, baliteke eskualdaketaren momentuan transmisio hori guztiz baliozkoa izatea (seme-alabarik ez egotekotan beste senide tronkero bati eman zaiolako), baina gerogarrenean lehenespenezko lerroko senide tronkero bat agertzeak, egintza horren inguruko baliozko-tasuna kolokan jartzen du.

Aurreko legeria aplikatuz, arazoa planteatzen da eskualdaketaren momentua eta deuseztasunaren efektuak aztertzean. Hala ere, EZZri buruzko lege berrian kontu hori nolabait argituta geratu da. Hainbatez, horrelako eskualdaketa bat deusez bihurtzeko senide tronkeroak berak aurkaratu beharko du, eta hortaz aurkaratzen ez denean guztiz baliozkoa izango da. Beraz, planteamendu horretatik ondoriozta daiteke, berez lege berriak ez duela, begi txarrez ikusten horrelako eskualdaketak gertatzea. Eta ondorioz, LGUTen erabilera dela eta jaiotako umea aurkaratzeko epea amaitu baino lehen jaiotzen bada kasuan kasuko besterentzea aurkaratu ahal izango du, baina behin epea igarota jaiotzen bada aldiz, ez. Jaioberriak eskualdaketa horren aurka egin ahal izateko gaitasunik ez duenez, garrantzitsua da kontuan hartzea, beronen ordezkari bere ama edo tutoreek jardun beharko dutela.

Laburbilduz, LGUTen erabilerak tronkalitatean eragin nabarmena dauka. Bada, teknika horien bitartez jaiotako haurrak printzipioz gainerrako senide eta ondorengoek beste eskubide izateaz gain, senide tronkeror izango da. Horrek suposatzen du tronkalitatearen nahitaezko erregelak errespetatuz ondasun tronkeroa familiaren barruan geratu beharko dela, jaraunsearen askatasuna mugatuz.

Amaitzeko, esan beharra dago EZZri buruzko legean tronkalitateari buruz jasotako arauketa nolabait aurreko legekoa baino zabalagoa dela. Baliteke joera malguago horren atzean gizartearen garapen eta aurrerakuntzak egotea, lan honetan aztergai diren LGUTak kasurako. Izan ere, tronkalitatearen inguruabarrak oso desberdinak dira gaur egun eta foruen garaian; familiaren kontzeptutik bertatik hasita. Eta 5/2015 Legearen bitartez, erakunde hau gaur eguneko egoerara moldatu da, ADRIÁN CELAYAK beharrezko zela zioen bezala: «*Y no pienso en abolir la troncalidad sino en adaptarla. Hay que modificar unas normas que heroicamente han sobrevivido durante muchos siglos pero que son muy difíciles de adaptar al mundo actual. (...) Me parece urgente esta modificación de la ley foral<sup>21</sup>*».

## VI. OINORDETZA

### 1. Delazioa

Delazioa EZZri buruzko legean 17. artikuluan jasotzen da, esanez noiz eta non irekiko den. Baina LGUTekin lotuta planteatzen den arazoari buruz, ez da inolako xedapenik jaso. Hau da aipatu arazoa, hain zuzen: *nondum conceptia* oinordetzarako deitua izan daitekeen<sup>22</sup>. Izan ere,

<sup>21</sup> CELAYA IBARRA, A. «La troncalidad» *JADO Aldizkaria*. 2012ko ekaina, 23. zenbakia, 7-19 orr.

<sup>22</sup> ATXABAL, A.; GOIKOETXEA, L.; PÉREZ, E. eta URRUTIA, A.M<sup>a</sup>. *Practicum de Derecho Civil Foral del País Vasco*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1995, 233 or.

*nondum concepti* edo *concepturusa* oraindik ernaldu gabe dagoen pertsona da; hau da, delazioa egiteko momentuan ernaldu gabe dagoena.

Hasiera baten, doktrina tradizionala *concepturusaren* delazioaren aurka agertu izan da, eta fideikomisozko ordezenaren bitartez egitea baino ez du onartu. Jarrera hori KZren 29. eta 758. artikuluetan oinarritzen dute; jaio arte pertsonak ez duelako nortasun juridikorik eskuratzen eta oinordekoen gaitasuna zehazteko kontuan hartu behar da kausatzaile edo *de cuiusaren* heriotzaren unea. Hortaz, *nondum conceptia*, kausatzailea hiltzen den unean jaio gabe dagoen heinean, ezin zaio oinordetzara deitu, ez baitu inolako izaterik.

Hala ere, doktrina modernoak eta jurisprudenziak, *concepturusaren* aldeko delazioa egin daitekeela adierazi dute, irizpide errealistak aplikatuz. Irizpide hauen oinarria, kausatzailearen borondatea da, eta beraz, kausatzaileak nahi izanez gero, *concepturusaren* aldeko oinordetza zehaztu ahal du, bai fideikomiso bidez, bai zuzenean jaraunsle izendatuz<sup>23</sup>. Beraz, LGUTen bitartez oraindik hazia jarri gabe egon arren, kausatzaileak etorkizunean jaioko den umea oinordeko izendatu dezake.

## 2. Nahitaezko oinordetza

Hasteko, esan beharra dago, 5/2015 Legeak, aurretik zegoen arauketa kontuan hartuta, aldaketa esanguratsuak ekarri dituela nahitaezko oinordetzaren ikuspuntutik. Izan ere, 3/1992 Legea indarrean zegoela legegintza erregimen desberdinak ziren aplikagarri lurraldez lurralde, alde batetik Euskal Foru Zuzenbide Zibilekoa (honen baitan Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako foruak desberdinduz) eta bestetik Kode Zibilekoa, eta orain EZZri buruzko legeari esker lurralde guztirako arauketa berdina ezarri da (Aialako forua eta tronkalitatea mantendu diren arren). Horrez gain senipartearen banaketa eta kantitatea ere aldatu egin da.

<sup>23</sup> URRUTIA BADIOLA, A.M. *Familia eta oinordetza zuzenbidea*. Bilbo: Gomylex, 2017, 163 or.

Nahitaezko oinordeko izango dira beraz, EZZren 47. artikulua arara, seme-alabak edo ondorengoak eta alarguna edo bizirik dirauen bikotekidea, aurreko legeak aipatzen zituen gurasoak edo aurrekoak senipartedunetatik kanpo utziz. Horiek horrela, LGUT bidez jaiotako umeak nahitaezko oinordeko izango dira, modu naturalean jaiotako umeen parean.

EZZn nahitaezko oinordeko edo senipartedunak baztertzeko aukera planteatzen da, hain zuzen ere, 54. artikuluan. Horren harira eta LGUTEkin lotuta, bi egoera planteatu daitezke, alde batetik gizona hiltzeko unean hazia jarrita egotea, eta bestetik, gizona hiltzean hazia jarri gabe egotea. Demagun lehenengo kasuan, gizonak testamentua egin zuen momentuan haurra jaio gabe edo hazia jarri gabe zegoela, baina gerogarrenean (gizona bizirik zegoela) ernalketa artifiziala egiten dela. Kasu horretan, gizona ernalketaren berri duela zendu da, eta hori jakinda aurretik egindako testamentua ez aldatzeak, berez preterizioa suposatuko luke jaiotzearen dagoen ume horrenganako, eta ez baztertzeko. Egin-eginean ere, baztertzeko egintza juridiko bat da, hau da, beharrezkoa da kausatzailearen jarduna egotea, eta preterizioa aldira, ez-egite bat da<sup>24</sup>. Baina, 5/2015 legeak 48.4. artikuluan berdindu egiten ditu preterizioa eta baztertzeko. Hortaz, halako kasuan, seme-alaba horrek ez luke seniparterik jasoko.

Bigarren kasuari dagokionez, senarrak bera hil eta gero 12 hilabetetan bere gametoak erabiltzeko adostasuna eman badu, baina ez badu testamentuan etorkizunean jaio daitekeen umearen aldeko adierazpenik egiten, nahigabeko preterizio bezala uler daiteke. Eta beraz, etorkizunean jaioko den ume horrek ez du ezer jasoko<sup>25</sup>, 3/1992 Legeak arautzen zuenaren kontrara; bertan gradu bereko oinordekoen artean kuota txikiena jasotzen zuenaren kuota berdina jasotzeko aukera baitzuen.

<sup>24</sup> FERNÁNDEZ DE BILBAO Y PAZ, J. «La necesidad del apartamento expreso en Derecho foral vizcaíno» *JADO aldizkaria*. 2009ko abendua, 18. zenbakia, 261-286 orr.

<sup>25</sup> GALICIA AIZPURUA, G. «La sucesión forzosa: planteamiento general» In *El Derecho Civil Vasco... op. cit.*, 389-421 orr.

### 3. *Abintestato* oinordetza

*Abintestato* oinordetza kausatzailea inolako testamentu edo oinordetza itunik egin gabe hil denean zabalduko da. Eta EZZk 113. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, oinordeko izango dira seme-alabak eta ilobak eta gainerako ondorengoak. Hortaz, LGUT bidez jaiotako seme-alabak oinordeko izan daitezke *abintestato* oinordetza irekitzen denean, baldin eta seme-alaba bezala inskribatuta badaude.

Aldiz, gizona hil eta bere jaraunspena banatu eta gero, bere emazteak senarraren gametoak erabiltzen baditu LGUT bitartez seme-alaba bat izateko, umea jaiotzen denean, GALICIA AIZPURUA<sup>26</sup> uste bezala zentzuzkoa dirudi hasierako banaketan beste batzuen alde egindako eskualdaketen eragingarritasunik eza erreklamatzeko aukera izatea. Preteriziori buruzko oker baten aurrean egongo ginatkeelako, kausatzaileak ezinezko zuelako etorkizunean ondorengoak izango zituenik jakitea, eta hori jakingo balu *de cuius*aren borondatea beste bat izango litzatekeela ulertzen da.

### 4. Testamentu bidezko oinordetza

#### A. Hil-buruko testamentua

Hil-buruko testamentua heriotza arriskuan egindakoa da, eta baliozkoa izateko hiru lekukoren aurrean egin behar da, EZZren 23. artikulua ezarri duenez. Legeak idatziz egitea eskatzen ez duen arren, beharrezkoa da gerogarrenean egiaztatzea eta eskritura publikoa egilestea, eta horretarako ezarri epean egin ezean indarrik gabe geratuko da testamentua.

LGUT erabileratik eratorri daitezkeen arazoak aurretik nahitaezko ondorengotzan planteatu diren berdinak dira; hau da, behin hazia jarrita

---

<sup>26</sup> GALICIA AIZPURUA, G. «La sucesión forzosa: planteamiento general» In *El Derecho Civil Vasco... op. cit.*, 389-421 orr.

egonda gertatzen denean edo oraindik hazirik jarri gabe. Bai kasu batean zein bestean, preterizio edo baztertze bat gertatuko da senarrak ez badu bere testamentuan seme-alaba horren aldeko adierazpenik, eta beraz, oinordetzatik kanpo gertatuko da kasuan kasuko seme-alaba.

#### B. Testamentu mankomunatua

Testamentu bat mankomunatua izango da bi pertsonek, bizikidetzan edo senidetasun harremana eduki zein ez, beraien ondasunak batera tresna bakar baten xedatzen dituztenean (EZZren 24. artikulua).

Beraz, testamentu honek suposatzen duena guraso biek testamentua batera egitea da. Printzipioz ez da inolako arazorik planteatzen oinordekoen izendapenerako eta ondorioz LGUTen bitartez jaiotako umeak modu naturalean jaiotako egoera berdinean egongo dira.

Aipatu beharra dago 5/2015 Legeak berrikuntza bat ekarri duela testamentu mankomunatuari dagokionez. Izatez, aurreko legeak senar-emazteentzako baino ez zuen aurreikusten testamentua egiteko modu hau (49 eta 172 artikuluetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foruan hurrenez hurren), baina gaur egun indarrean dagoen legeak esparru hori handitu du. Beraz, testamentu mota honen inguruan planteatzen zen arazoa konponduta dago<sup>27</sup>; orain ez da beharrezkoa izango ez bizikidetzan ezta senidetasun harremanik egotea, beraz LGUTetara jotzen duten ezkongabeek ere testamentu mankomunatu burutu ahal izango dute.

#### C. Komisario bidezko testamentua

EZZren 30. artikuluekin bat etorriz, komisario bidezko testamentuan, norbaitek beste inor izendatzen du bere oinordekoak izenda ditzan

<sup>27</sup> MARTÍNEZ DE BUTRÓN MARTÍNEZ, M. «De la sucesión por testamento mancomunado o de hermandad». In URRUTIA BADIOLA, A.M. (Koord.). *La ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco. Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*. Zuzenbidearen Euskal Akademia. Bilbo: Dykinson, S.L., 2016, 63-68 orr.



eta ondasunen banaketa egin dezan, horretarako lehenengoak testamendu ahala eman beharko dio bigarrenari<sup>28</sup>.

Aztergai den LGUTen kasuan, seme-alabak jaiota egotekotan ez da gatazkarik planteatzen, baina bai ordea oraindik jaiotako ez direnean. Senarra hiltzean hazia jarrita baldin badago, LGUT erabiltzeko adostasuna dagoela ulertuko da eta beraz hildako aitaren seme-alabatasuna zehaztuko da arazorik gabe. Hortaz, komisarioak kontuan hartu beharko du ume hori kausatzailearen oinordekoen izendapenerako eta ondasunen banaketarako.

Hazia jarri gabe dagoenean, baina senarrak bere gametoak erabiltzeko adostasuna eman duen kasuan, ulertuko da bere aldeko seme-alabatasuna zehaztu daitekeela, eta beraz komisarioak oinordeko izendatu dezakeela.

Hala ere, nahiz eta hazia jarri gabe egon, emakumeak gizonaren gametoak erabil ditzakeen 12 hilabete horietan, komisarioa beronek aukera hori egikaritzeari begira egongo da, epe hori igaro arte. Beraz, komisarioak banaketa egiteko duen epea luzatu egingo da. Laburbilduz, komisarioak aintzat hartu beharko ditu kausatzaileak zituen ondorengo eta ondasun guztiak, eta horiek berak uste bezala banatu beharko ditu beraien artean.

## VII. FORU-KOMUNIKAZIOA

Foru-komunikazioa berez, Bizkaiko Forutik datorren ezkontza erregimen bat da. Izan ere, 3/1992 Legean arautzen zenez, erregimen hau aplikagarri zitzaizen Bizkaiko lur lauko, Laudioko eta Aramaioko auzotasun zibila zutenei, eta EZZri buruzko egungo legeak ere horrela mantendu du (127.2 artikulua).

<sup>28</sup> FERNÁNDEZ DE BILBAO Y PAZ, J. «De la sucesión por comisario». In URRUTIA BADIOLA, A.M. (Koord.). *La ley 5/2015, de 25 de junio...* op. cit., 70-81 orr.

Hasteko, 5/2015 Legeak, 125. artikuluan askatasuna ematen die ezkontideei beraien arteko erregimen ekonomikoa zehazteko, eta horren inguruko zehaztapenik egin ezean, irabazpidezko sozietatea aplikatuko zaiela ezarri da bi artikulua aurrerago. Hala ere, irabazpidezko sozietatea euskal auzotasun zibil orokorra dutenentzat izango da, baina hasieran aipatu bezala, Bizkaiko lur lauko, Laudioko eta Aramaioko toki auzotasun zibila dutenei foru-komunikazioa dagokie.

Gainera, aipatu beharra dago EZZri buruzko legeak, izatezko bikoteen erregimen ekonomikoaren inguruan aldaketa bat suposatu duela. Bada, lege horren bigarren xedapen gehigarriaren bitartez 2/2003 Legearen<sup>29</sup> 5. artikulua eraldatu da, ezarriz izatezko bikoteek euren arteko erregimena zehaztu ezean sorospidez, KZn araututako ondasunen banantzea aplikatuko zaiela.

Foru-komunikazioaren ondorioekin jarraituz, aztergai den legearen 129. artikuluan beronen funtzionamendua ezarri da, esanez erkide egiten direla ezkontideentzat erdiz bana ondasun, eskubide eta akzio guztiak, euren jatorria zein den kontuan hartu gabe. Beraz, manu hau eta 133. kontuan hartuta –zeinak foru-komunikazioak dirauen bitartean ondasun pribatiboak eta erkideak bereiziko direla zehazten duen– ondorioztatzen da erregimen honen aplikazioaren bitartez hiru masa bereiziko direla; batetik masa erkidea egongo da, eta bestetik, ezkontide bakoitzak berea izango du.

Horiek horrela, LGUTekin lotuta foru-komunikazioaren disoluzioa aztertu behar da, momentu hori baita seme-alabak jokoan sartzen direna. EZZren 132. artikuluan foru-komunikazioaren sendotzeaz mintzatzean, berau ezkontideetako bat hiltzean gertatzen dela esaten da, baldin eta horien seme-alaba eta ondorengoak badaude. Ondorioz eta MONJE BALMASE-

---

<sup>29</sup> Euskal Autonomia Erkidegoa. 2/2003 Legea, 2003ko maiatzaren 7koa, Izatezko Bikoteen arauketari buruzkoa. *EHAO*, 2003ko maiatzaren 23an argitaratua, 100. zenbakia.

DAK<sup>30</sup> azaldu bezala, ezkontideen ondasun guztiak erdiz bana banatuko dira alargunaren eta oinordekoen artean. Beraz, LGUTen erabileraren bitartez jaiotako seme-alabek, bere gurasoetatik edozein hiltzekotan, foru-komunikazioa osatzen duten ondasun, eskubide eta akzioen erdia jasoko dute.

Aldiz, hiltzen dena senarra baldin bada, eta oraindik umea jaio gabe, edo hazia jarri gabe badago, foru-komunikazioaren likidazioa dela eta egin beharreko banaketa eten egingo da. Bada, amak egoera horren berri eman behar du, baldin eta ume hori jaiotzeak likidazioaren onuradunen eskubideak gutxitzea eragin badezake (KZren 959. artikulua eta hurrengoak), eta planteatu den kasuan, jaiotzeke dagoen haurra *de cuius*aren seme-alaba izango litzateke, beraz jaiotza horrek eragina izango luke banaketan.

Labur zuhurrean esanda, foru-komunikazioaren kasuan berebiziko garrantzia dauka ezkontideek seme-alaba komunak izateak, hori baita foru-komunikazioa sendotzeko beharrezko baldintza bat. LGUTak kontuan hartuta, erakunde honetan gatazka sortuko da emazteak senarraren gametoak erabiltzeko duen 12 hilabeteko epe horretan. Bada, 12 hilabete horiek igaro arte eta emakumeak aukera hori egikaritu arte etenda geratuko da foru-komunikazioaren likidazioa.

## VIII. ONDORIOAK

Lehen. LGUTk orokorrean gizartearen garapenaren isla dira. Argi dago, gaur egungo familia antolaketa ereduak antolaketa tradizionalarekin alde handiak dituela, eta horren adierazgarri dira lagundutako ugalketa teknikak. Bada, gero eta anitzagoak dira bikote homosexualak eta guraso bakarreko familiak. Horri eta zientziaren eta medikuntzaren au-

<sup>30</sup> MONJE BALMASEDA, O. «El régimen económico matrimonial en la ley 5/2015, de Derecho Civil Vasco. La comunicación foral de bienes». In *El Derecho Civil Vasco... op. cit.*, 457-484 orr.

rrerapenei esker, gaur egun posible da modu naturalean guraso izateaz gain, modu artifizialean gauza bera lortzea. Beraz, garapen horiek guztiek ia edonori guraso izateko eskubidea egikaritzea ahalbidetzen diote.

Bigarrena. LGUTen arauketari dagokionez, nahiko eskasa dela esan daiteke. Izan ere, 14/2006 Legean aurki daitekeen arauketa baino ez dago; estatu mailakoa dena. Bada, EAEk, lan honen II. atalean azaldu zen bezala, estatuak finkatutako arauketa garatzeko eskumena duen arren, ez du aukera hori egikaritu eta ondorioz, estatu mailako legea izango da aplikagarri hemen ere. Gainera, 14/2006 Legeak, ez du ondorio zibil askorik arautzen eta estatuak emandako legea den heinean, bere eskumenaren barruan sartzen da arauketa zibila, hortaz segurtasun juridikoa eta sor daitezkeen arazoak konpontzeko modua izango litzateke LGUTen legean bertan ondorio zibilak ere arautzea.

Hirugarrena. Amatasun subrogatuaren debekua Espainiar estatuan. 14/2006 Legeak legezko diren teknikak arautzen ditu eta eskumen legegilearen atalean azaldu bezala, gero eta gehiago erabiltzen den amatasun subrogatuaren teknika –herrialde batzuetan legezkoa dena– legezko diren teknika horietatik kanpo geratu da. Horrek suposatzen du LGUTen bitartez seme-alabak izan ezin dituztenek, ezin izango dutela familia bat sortu, adopzio bitartez ezpada, eta askotan zaila izaten da adopzioak egitea, horiek burutzeko eskatzen diren betekizunak eta tramiteak direla eta. Hortaz, amatasun subrogatua legez kanpokoa izateak eta LGUT legezkoak izateak, kontraesan bat planteatzen duela uler daiteke, legeak guraso bakarreko familiak sortzea bermatu nahi duelako eta amatasun subrogatua debekatuz eskubide hori mugatu egiten duelako.

Laugarrena. LGUT bidez jaiotako seme-alaben eta seme-alaba biologiko eta adopzio bidezkoen arteko berdinketa. Nahiz eta doktrinan banaketa egon LGUT bidez jaiotako umeak biologiko edo adopzio bidezkoak diren zehazteko, egokiagoa dirudi seme-alabatasun biologikoaren alde egitea, adopzioan ez bezala, amak sabelean hazten baitu, modu artifizialean

ernaldutako haurra. Nolanahi ere, gaur egun berdinu egiten dira adopzio bidez, zein modu biologikoan sortutako umeak, beraz seme-alabatasun mota baten zein bestearen aldeko zehaztapena egiteak ondorio berdinak sortuko ditu. Hortaz, lan guztian zehar egindako azterketan LGUTen erabileraren bitartez jaiotako haurrak horiekin –seme-alaba biologiko edo adopzio bidezkoekin– berdintzen direla atera daiteke ondorio gisa. Alabaina zentzuzkoa da legeak berdinketa hori egitea; bestela bereizkeria egongo litzateke teknika hauen erabiltzaileen seme-alabekiko.

Bosgarrena. Euskal auzotasun zibil erkidea. Auzotasun zibilaren bateratzea 5/2015 Legeak ekarri duen aldaketarik garrantzitsuenetariko bat da, garrantzitsuena ezpada, eta ondorio gehien eragin dituen. Izan ere, aurreko arauketarekin, auzotasun zibil desberdinak zeuden eta horien arabera arau desberdinak aplikatzen zitzaizkien EAEko herritarrei. Horiek horrela, gaur egun indarrean dagoen legeriak Euskal Herri osoan arauketa zibil berdina aplikatzea ahalbidetu du –tronkalitatea eta Aialako testamentu askatasuna mantendu den arren–, berezkoa dugun zuzenbide zibilaren nolabaiteko batasuna eta indartzea eraginez. Horrez gain, autonomiaren barruan sor zitezkeen balizko lege gatazkak murrizteko bidean aurrerapauso izan daiteke, eta segurtasun juridikoa handitzeko balio izango du.

Seigarrena. Tronkalitatearen malgutasuna. Bosgarren atalean azaldu dugunez, lege aldaketa dela eta ondasun tronkalen dohainezko eskualdaketak ez dira berez deusezak izango, deuseztakorrak baizik. Halatan, senide tronkeroen eskubideen norainokoa murriztu egin da, nolabait tronkalitatearen nagusitasuna txikiagotuz. Horrek LGUT bidez jaiotako senide tronkerengan ere eragina dauka. Bada, kausatzailearen heriotza gertatu eta gero bere gametoak erabiltzeko aukerak, etorkizunean lehenespenezko lerroko senide tronkero izango zirenek euroi egokituko litzaien ondasuna erreklamatzeko aukera galtzea eragin lezake, horretarako epea agortuko balitz. Hartara, 5/2015 legeak ekarritako aldaketak zaildu egiten du LGUTen bidez jaiotako haurrek beraien eskubide tronkalak egikaritzea.

Zazpigarrena. LGUT bidez jaiotakoek oinordeko izateko eskubidea izango dute, modu naturalean jaiotakoen gisara. Bai EZZri buruzko legeak arautzen dituen testamentu mota guztien bidez, bai *abintestato* oinordetzaren bidez, LGUT bidez jaiotako umeak oinordeko izendatu ahal izango dira. Hala ere, ezin da ahantzi senarrak bere gametoak erabiltzeko adostasuna testamentu bidez emateko aukerak, oinordetzaren banaketa eten eta 12 hilabete horietan teknikak erabiltzearen zain egotea eragin dezakeela.

Zortzigarrena. Foru-komunikazioa dela eta azaldu berri den egoeraren pareko inguruabarrak gertatzen dira. Gurasoetatik edozeinen heriotza gertatzean komunikatu diren masa bakoitzaren erdia jasotzeko aukera izango dute LGUTen aplikazioa dela eta jaiotako seme-alabek, modu naturalean jaiotakoek bezala. Kontrara hiltzen dena senarra denean eta bere ugalketa materiala erabiltzeko adostasuna eman duenean, emazteak aukera hori egikaritzearen zain egon beharko da banaketa egiteko. Izatez, ondasunon banaketa guztiz desberdina izango baita seme-alabak egon edo ez egon.

## IX. BIBLIOGRAFIA

ATXABAL, A.; GOIKOETXEA, L.; PÉREZ, E. eta URRUTIA, A.M<sup>a</sup>. *Practicum de Derecho Civil Foral del País Vasco*. Bilbo: Deustoko Unibertsitatea, 1995. urtea.

BARBER CÁRCAMO, R. «Reproducción asistida y determinación de la filiación». *Revista Electrónica de Derecho (REDUR)*. 2010eko abendua, 8. zenbakia.

CELAYA IBARRA, A. «La troncalidad». *JADO Aldizkaria*. 2012ko ekaina, 23. zenbakia.

CHALBAUD ERRAZQUIN, L. *La Troncalidad en el Fuero de Bizcaya: sucesión troncal, llamamientos en las transmisiones onerosas*. Bilbo: Sebastián de Amorrortu, 1898.

Estatu Kontseiluaren 1537/1992 Irizpena, 3/1992 Legea –Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa– dela eta eskumenen egokitzapenerakoa. [http://www.forulege.com/dokumentuak/Dictamen\\_Consejo\\_Estado\\_Ley\\_3\\_1992\\_1\\_julio\\_Derecho\\_civil\\_foral.pdf](http://www.forulege.com/dokumentuak/Dictamen_Consejo_Estado_Ley_3_1992_1_julio_Derecho_civil_foral.pdf) (Azken kontsulta: 2017ko maiatzaren 21ean).

FERNÁNDEZ DE BILBAO Y PAZ, J. «La necesidad del apartamiento expreso en Derecho foral vizcaíno». *JADO aldizkaria*. 2009ko abendua, 18. zenbakia.

FERNÁNDEZ DE BILBAO Y PAZ, J. «De la sucesión por comisario». In URRUTIA BADIOLA, A.M. (Koord.). *La ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco. Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*. Zuzenbidearen Euskal Akademia. Bilbo: Dykinson, S.L., 2016.

GALICIA AIZPURUA, G. «La sucesión forzosa: planteamiento general». In *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*. Gasteiz: Txosten eta agiriak bilduma. Maior saila. Eusko Legebiltzarra, 2016.

GOROSTIZA VICENTE, J.M. «El futuro de la institución troncal». In *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*. Gasteiz: Txosten eta agiriak bilduma. Maior saila. Eusko Legebiltzarra, 2016.

IRIARTE ÁNGEL, J.L. «El asentamiento institucional y material del Derecho Civil Vasco: Ámbito material y personal y normas conflictuales». In *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la Ley de 2015 a sus desarrollos futuros*. Gasteiz: Txosten eta agiriak bilduma. Maior saila. Eusko Legebiltzarra, 2016.

MARTÍNEZ DE BUTRÓN MARTÍNEZ, M. «De la sucesión por testamento mancomunado o de hermandad». In URRUTIA BADIOLA, A.M. (Koord.). *La ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco. Comentarios breves, texto de la ley, antecedentes legislativos y formulario notarial*. Zuzenbidearen Euskal Akademia. Bilbo: Dykinson, S.L., 2016.

MONJE BALMASEDA, O. «El régimen económico matrimonial en la ley 5/2015, de Derecho Civil Vasco. La comunicación foral de bienes». In *El Derecho Civil Vasco del siglo XXI. De la ley de 2015 a sus desarrollos futuros*. Gasteiz: Txosten eta agiriak bilduma. Maior saila. Eusko Legebiltzarra. Bilbon, 2016.

TAMAYO HAYA, S. «Hacia un nuevo modelo de filiación basado en la voluntad de las sociedades contemporáneas». *Revista Digital Facultad de Derecho (Universidad de Cantabria)*. 2013, 6. zenbakia.

URRUTIA BADIOLA, A.M. *Familia eta oinordetza zuzenbidea*. Bilbo: Gomylex, 2017.

VERDERA SERVER, R. «Comentario a los artículos 7 y 8». In: COBACHO GOMEZ, J.A. (Koord.). *Comentarios a la ley 14/2006, de 26 de mayo, sobre Técnicas de Reproducción Humana Asistida*. Zizur Txikia: Thomson-Aranzadi, 2007.

## X. ARAUEN ERANSKINA

Espainia. 1889ko uztailaren 4ko Errege Dekretua, Kode Zibila argitaratzekoa. EAO, 1889ko uztailaren 25ean argitaratua, 206. zenbakia.

Espainia. Espainiako Konstituzioa. EAO, 1978ko abenduaren 29an argitaratua, 311. zenbakia.

Espainia. 35/1988 Legea, azaroaren 22koa, Lagundutako Ugalketa Teknikei buruzkoa. EAO, 1988ko azaroaren 24an argitaratua, 282. zenbakia.

Espainia. 45/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, zeinaren bitartez 35/1988 Legea, Lagundutako Ugalketa Teknikei buruzkoa aldatzen den. EAO, 2003ko azaroaren 22an argitaratua, 280. zenbakia.

Espainia. 14/2006 Legea, maiatzaren 26koa, Lagundutako Giza Ugalketa Teknikei buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO), 2006ko maiatzaren 28an argitaratua, 126. zenbakia.

Espainia. 20/2011 Legea, uztailaren 21koa, Erregistro Zibilar buruzkoa. EAO, 2011ko uztailaren 22an argitaratua, 175 zenbakia.

Euskal Autonomia Erkidegoa. 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriko Autonomia Estatutuari buruzkoa. EHAO, 1980ko urtarrilaren 12an argitaratua, 32. zenbakia.

Euskal Autonomia Erkidegoa. 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa. EHAO, 1992ko abuztuaren 7an argitaratua, 153. zenbakia.

Euskal Autonomia Erkidegoa. 2/2003 Legea, 2003ko maiatzaren 7koa, Izatezko Bikoteen arauketari buruzkoa. EHAO, 2003ko maiatzaren 23an argitaratua, 100. zenbakia.

Euskal Autonomia Erkidegoa. 5/2015 Legea, ekainaren 25eko, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoa. Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala (EHAO), 2015eko uztailaren 3an argitaratua, 124. zenbakia.



XI. LABURDURAK

|      |                                    |
|------|------------------------------------|
| AE   | Autonomia Erkidegoak               |
| EAE  | Euskal Autonomia Erkidegoa         |
| EAO  | Estatuko Aldizkari Ofiziala        |
| EHAE | Euskal Herriko Autonomia Estatutua |
| EHAO | Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala  |
| EK   | Espainiako Konstituzioa            |
| EZZ  | Euskal Zuzenbide Zibila            |
| KZ   | Kode Zibila                        |
| LGUT | Lagundutako Giza Ugalketa Teknikak |